

N u !




409 etxebizitza berri
eraikiko dira Olarriondon

U.M.º UCIN S.A. GREBAN
LAN BERRINA SOLDATA BERRINA

Soldaten parekotasuna
aldarrikatzen ari dira

ANTXETA

Bokatak
Pintxoak
Menuak



Eguzkitza, 4
Telf: 943 37 03 44

AITZAGA



**PRESOAK ETXEAN
BEHAR DITUGU**



Fotokopiak, planoak, enkuadernazioak

zeuk

Kopiagintza eta
Grafiko zerbitzuak

arropa pertsonalizatua, irudiak, posterrak, enmarkazioak

Bordaberri, | 687 47 01 77

Web orria: www.zuzeuk.com E-mail: info@zuzeuk.com

Txirrikitutik

Garai batean Aginagako eskolak garrantzi handia izan zuten, bertatik auzoko haur gehienak pasa baitziren. 1970. urte inguruan ateratako argazki hau duzue horren adibide garbia, bertan 41 haur ageri baitira. Urteak pasa badira ere, ezagutzen al dituzue aingeru aurpegia duten haur hauek?

Ezkerretik eskubira eta goitik behera hona hemen protagonisten izen-abizenak: Belen Manterola, Gema Azpiroz, Maria Luisa Pikabea, Ignazio Alkorta, Rosa Mari Urdangarin, Koro Rezola, Maria Jesus Agirre, Eli Bereziartua, Mertxe Dorronsoro, Mila Pikabea, Jose Miguel Begiristain, Geronimo Esnal, Fernandez, Emilio Marcos, Tomas Lasarte, Isidro Lizarza, Iñaki Illaramendi, Ana Mari (andereñoa), Javi De Diego, Maialen Alkorta, Paulino Hernandez, Martin Errasti, Maria Jesus Lizarralde, Manuel Jose Bruño, Elena Errasti, Karmen Beloki, Juan Bautista Pagola, Maria Jesus Bengoetxea, Jose Javier Furundarena, Xabier Aranburu, Mari Jose Bereziartua, Joxe Manterola, Eva Otamendi, Iñaki Labaka, Aitor Maioz, Jose Mari Orbegozo, Juli Bereziartua, Juan Mari Orbegozo, Amaia Rezola, Maria Rosa Labaka eta Beatriz Errasti.

Zalao Arnaiz Ibaguren



Egile ezezaguna, 1970. urte ingurua,
Jabetza: Juli Bereziartua

Aginaga

Akatsak zuzenduz: 171. aleko argazkian Luis Maiz eta Jose Mari Sagardiaren abizenak oker eman nituen. Hona hemen beren benetazko deiturak: Luis Ruiz eta Jose Mari Pagola. Eskerrik asko okerra zuzentzen lagundu duzuen guztiei.



OHARRA: Udal fototeka herritarren zerbitzura dago eta horretarako atek zabalik ditugu bertako funtzionamendua ezagutzeko, argazkiren bat ikusi edo eta eskatzeko, herriko argazki zaharren bat udal fototekara digitalizatzerara ekartzeko... Jar zaituzte udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9'00etatik 14'00etara). Telefonoa 943 371951. E-posta: fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net
Garai bateko argazkien bidez gure herria ezagutzeko aukera izango duzu. Anima zaituzte!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonsito Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustín Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe eta Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkietza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Ucin enpresako langileak greban jarraitzen dute.

Aurkibidea

PIL-PILEAN

5. ORR.

Ekitaldi ugariko eguberriak

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN

6. ORR.

HERRIKO TALDEAK

10. ORR.

Usurbilgo Elkarrizketaren deialdia

ERREPORTAJEA

28. ORR.

Olarriondoko lur jabeak eta
Udala akordio batera iritsi dira



OTEIZA NOUA! TXIKI ORRIALDEAN

31. ORR.

AGENDAN EKITALDI GUZTIEN DATUAK

15. ORR.

AKATSAK ZUZENDUZ: 171. alean egin elkarriketan azaldu zen kopuru bat zuzendu nahi du UHLK: "zinegotzien kostua %48 igo dela eta ez, akats baten ondorioz, %60, esan genuen bezala"



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea



MIKEL USABIAGA

Irribarrea

Azken aldiotan, egunkarietan eta irakurri dudanez, barre egiten (sortzen) ikasteko emanaldiak ugaltzen ari dira. Barre egiten ikasi egin daiteke horretarako teknikak eta trikimailuak jorratuz. Ez al zaizue ikastaro garrantzitsua denik iruditzen?

Barre egitea osasungarria ezezik, eguneroko lanek eta giza arazoek sortzen dizkiguten tentsiotatik libratzeko aproposa dela esango nuke. Egia esan, barre asko egiten duen pertsonarengan halakoxe zorion iturri bat ikusi ei da. Humorea duenak horixe bera transmititzen du eta erakargarri gertatzen da. Gainera, barre egitea, ariketa fisikoa omen dela dioenik ere bada. Hamar minutuko barreak eta 15 minutuko arraunketak ondorio berdintsuak omen ditu bihotz-garun eta gihar sisteman. Joxeluis Kortak ba ote daki hori? Agian, arraunlariei, barre egiten irakatsi beharko lieke.

Dena den, besteei barre eginaraziz, norberak ere barre eginez, ingurua alaitzen ahalegintzen diren pertsonak badira eta izan dira. Gerra eta sesioa jartzen dutenak baino gehiago gustatzen eta estimatzen ditut. Horietako bat Lazkao Txiki izan genuen. Gure osasunak asko zor dio Joxemiel Iztuetari. Dudarik gabe artista paregabea izan genuen jendea barrez jartzen, berezko humorea bazuen ere, oso teknika berezia erabiltzen zuen txistek kontatzerakoan. Nik dakidala ez zuen inongo ikastarorik egin, baina gogoan izango duzue, txiste guztiak honela hasten zituela: "hau jakingo duzue baino"... "bueno igual dio"... Matxinbentako neska zaharrari gertatutakoa kontatuko dizuet"... jendea dagoeneko barreka hasten zen, "ikusten nola dakizuen"-jarraitzen zuen. Entzulegoaren artean barreka zegoen emakumeren bat behatzez apuntatuz, "Zer? Zuk badakizu ezta?" - esanez, oraindik eta barre gehiago sortzen zuen jendartean. Txiste bat kontatzerakoan erabiltzen zituen esaldi guztiokin, entzulegoa, berotu eta girotu ezezik bere humorearen barruan sartzen zuen. Trebea zen horretan.

Guk, Lazkaomendiko auzoan bere auzokide izateko suertea izan dugunok, asko gogoratzen ditugu, auzoko tabernan, goizeko ordu txikiak arte bere inguruan pasatako une eder eta gozo haiek. Asko gogoratzen dugu Oiartzungo Mitxelenaekin batera, Joxemielek, bertotan eta tistetan jardun zueneko gau hura. Zeinen ederra izaten zen Joxemielen ondoan egotea eta berarekin batera afaltzea. Benetan osasungarri. Eskerrik Asko Joxemiell. Usurbilen hirekin barre ikastaro bat egitea atsegingarri izango hukeen. Jende asko apuntatuko huen ikastarora.

*Kantari hasi baino lehenago
jendearen irrifarra
edo algara lortzen zekien
bertso egile bakarra,
eta kantari hasitakoan
zivia eta piperra
azken puntuan sartzen maisua,
pikaroa eta azkarra.*

*Gaiak horrela agintzen eta
askotan halabeharrez,
zekien barre eginarazten
ironiaren indarrez
ta berdin-berdin ohartzera
jartzen gintuen negarrez
bihotza ukituz barreneraino
bertso triste eta xamurrez.*

Behin hola, Lazkaon, kotxea gaizki aparkatu zuen agoazila aurre-aurrean zuela eta bertantxe zegoen tabernara sartu zen baxoerdi bat hartzera. Bere atzetik ezagun bat sartu zen eta honela esan zion denen aurrean - "Hi! Joxemiell! agozilaren aurrean kotxea horrela aparkatzen duena ez al da lotsagabe xamarra? - Lotsagabeagoa duk agoazila aurrean ez dagoenean gaizki aparkatzen duena" - erantzun zion tabernako guztiak barreka utziz.

Beno irakurle, Eguberri On eta izan dezagula mahaian jan gutxiago eta, irribarrea gehiago. Horrela izango gara urte berrian osasuntsuago.

(Goiko bertsoak, Antton Kazabonen "Koskotenekoak" liburutik hartu ditut)

ERRAZ IN

Igeltzer tza

f rra

K I N u s , l
T l f 3 3 1 2 7 1 3 5 1 2 5
S n t u ■ M 2 2 5 5

ITZ G

HE IK T E N

S u s r e n k i k , l u r
k n a t u k , e l t z k ...



Enstia pr 2 ak 7 ra

T l f 3 3 2 1 7



I l t s r t z

Mugikorra: 649435475

649435476

943 363370- 361439



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

H n k n U z n n , s l z
USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K I N u s , 2 l . c
T l f 3 3 7 7

2 1 7
USU IL

Hitzordu ugariko Gabonak

Gabonak gainean ditugu. Eta jan geta edan egiteko hitzorduak ugari badira, are gehiago eguberrien inguruan antolatu diren ekitaldiak. Hemen dituzue aurten egin diren deialdi nabarmenenak.

Abenduaren 19an, ostirala, Easo Koroa Salvatore Elizan Easo Koroaren gizezkoen emanaldia 20:00etan hasiko da, Salvatore Parrokian.

Abenduaren 23an, asteartea Zumarteren Gabon Kontzertua Zumarte Musika Eskolak Gabon Kontzertua eskainiko du Salvatore Parrokian, 20:30etan hasiko da saioa.

Abenduaren 24an, asteazkena Gabon Kanta 2003

Zumarte Musika Eskolak, Katekesi Taldeak eta Irriu Abesbatzak 17:30ean bilduko dira Txaramunto aurrean. Herritar guztiei zabaldu zaie deialdia eta, ahal bada, baserritarrez jantzita azaltzeko gonbitea egin dute.

Etixeratlekoen deia Abenduaren 24an ere, arratsaldeko 16:00etan, presoan aldeko Olentzero irtengo da pilotalekutik. Azken entseguak, abenduaren 22an Aitzagan, 20:00etan, eta abenduaren 24an bertan, kantari irten aurretik. Jendeari hasiera-hasieratik partehartzeko deia egiten die Etixeratlek, eta ahal izanez gero, baserritarrez jantzita hurbiltzeko.

Abenduaren 31, diskoteka Urte Zahar gaueko Diskoteka Usurbilgo Frontoian. Hasiera: 01:00. Bukaera: 06:00.



SANTO TOMAS EGUNAK EGUBERRIEN USAINA AURRERATU ZIGUN.

Urtarrilaren 5ean, Errege Kabalgata pilotalekuraino

Errege Egunaren bezperan, urtarrilaren 5ean, Errege Kabalgataz gozatzeko aukera izango dugu. 19:30etan iritsiko da kabalgata Usurbilgo pilotalekura.

ENTRETENIMENDU UGARI

Abenduaren 20an, larunbata Takolo, Pirritx eta Porrotx, Oiardon Aurten ere, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazok emanaldi berria eskainiko dute Oiardon kiroldegian. Bi saiotan arituko dira. Lehena, 16:30etan; bigarrena 18:30etan. Sarrerak: Oiardon, Bordatxon eta Mahukan. Aurretik, 4 euro. Egunean bertan, 5 euro. 12 hila-bete aurrekoak, doan. Antolatzailea: Argiaren Lagunak.

Abenduaren 23an, asteartea txotxongiloak Udarregin NOAUAlk eta Udalak elkarlanean,

txotxongilo saioa antolatu dugu Udarregi Ikastolan, 17:00etan. Ondoren, trikitixa kalejira pilotalekuraino eta bertan gaztain-jana egingo da.

Abenduaren 30an, asteartea Sebastopoleko Titiriteroak pilotalekuan Urtea ondo amaitzeko, Sebastopoleko Titiriteroak izango dira gure artean. Egun osoz pilotalekuan, gaztelu puzgarriak, futbolin-erraldoia, malabarrak eta makilaje-tailerrean jolasteko aukera izango dugu. Dena musikaz girotua. Eta arratsalde partean, txokolate-jana denentzat.



PAILAZOEK "POXPOLIN MARISORGIN" IKUSKIZUN BERRIA AURKEZTUKO DUTE OIARDON.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13
Telf: 943 36 04 66

MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Etxeak 1, 3
Tlf: 33 11



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Olentzerori eskean

Kaixo auzotar guztioi, aurtengoan ere badatozkgigula gabonak eta pozik gatoz oraingoan gure inguruko kontuak idaztera.

Gabonak datozenaren lehen ikurrerako bat Santo Tomas eguna dugu. Txistorra goxorik jateko aukera izan genuen lehengo larunbatean. Eta igande honetan, Donostian. Eguberrietan, duela urte gutxirarte hain ohikoak ziren angulak, ordea, aurtengo honetan ez zaizkigu gehiegi gerturatu.

Olentzerori edo Erregeei gutunak idazteko garaia ere badenez, pilak berziklatzeko gordailu bat eskatuz bukatuko dugu aurtengoz, eguberri on eta urte berri zoriontsua izan dezazuela guztiok.



IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

Urdinarbe eta Usurbilen arteko katea ez eten

Urtero bezala, duela sei bat urte hasi ziren hartuemanak ez dira eten. Gauza xumeak aintzat harturik, kantzak eta pilota esate baterako, lokarri izaten dira elkarlan honetan. Abenduaren 13ko gauean Urdinarbeko kultur etxean 140 lagun bildu ziren mahaiaren jiran. Bertan, sei usurbildarrek afaria prestatu, zuberotarrek zerbitzatu eta ostean emakume boskoteak abesti hunkigarri bezain sakonak abestu zituzten.

Bestalde, Andatzako mendi asteak ere amaiera oparoa izan du. Diapositiba emanaldietan munduko hainbat lekuetako paraje nahiz kultur joerak ikusgai izan dira. Jendea gustura irten da. Bestalde, larunbateko Buruntzako 4 orduko ibilaldiak bazkariarekin izan zuen amaiera 25 lagun bildu zirelarik. Igandean aldiz, haurrek ibilaldi neur-tuan ez zuten zorte onik izan mela/mela iri-



tsi baitziren ibilalditik atertu gabe aritu baitzen euria.

Mendi tertulian jarraiturik, federatu nahi duten herritarrek aukera badutela oraindik asteartero Andatza mendi taldeko bulgoetara hurbilduz, gaueko 20:30etatik aurrera.

Gainean ditugu Gabonak

Kaixo lagunok, oraingoan ere hemen nauzue kontu-kontari. Buruari bueltaka ibili naiz zuei Kalezarren berri emateko asmotan, baina ez zait ideia handirik bururatu.

Alde batetik kezkatzen nauen arazo bat daukat. Nik ez dakit zer gertatzen den Kalezarren baina sarritan entzuten ditut lapurretei buruzko esamesak. Duela gutxi ere kontuz ibiltzeko aholkua eman ziguten, azken aldian jende arraroa ikusten baitzuten auzoan eta. Badakit boladak izaten direla, baina gure auzoan honelako boladak sarritan ematen dira.

Bestalde, gabonak gainean ditugula eta, nik badut jakinmin apur bat. Ez dakit gabonak zer duten baina sentsazio pixka bat arraroa ematen dute. Alde batetik, familian pasatzeko egun zoragarriak dira, denak biltzen baikara, baina bestalde tristura pixka bat ere zorrarazten didate, segituan iluntzen du, hotza egiten du... Nire jakinmina ondorengo da: ez du oraindik

herrian apaindurarik ikusi eta zarbait jarriko ote duten jakinmin hori dut.

Donostiara joaten naizenean gabonetan eta argiak zintzilik ikusten ditudanean, poza ematen dit, eta poz hori desberdina da, zorientasuna transmititzen duen poza da. Jende ugari ibiltzen da kalean, edozein iskinatan gaztain saltzailea ikusten dugu etab. Honelako gertakariak gabonetan bakarrik ikusten baititugu.

Haurrak ere pozik egoten dira Olentzero eta Erregeen zain, ni ere gogoratzen naiz haurra nintzenean gabonak niretzat zuten garrantziaz. Lehenago, Erregeei eskutitza idatzi behar izaten nien, gero itxaron egin behar eta a ze nerbioak! Eta bezperan!!! Egunean bertan berriz goizean goiz esnatzen nintzen eta korrika opariak irekitzera joaten nintzen, a ze poza! Ez al da polita?

Benoa lagunok, orain badakizue, txintxo portatu bestela Olentzerok ikatza ekarriko dizue eta.

Kalezar



ALOÑA
PULIDO

Mendi Astea

Hemen nauzue, berriro ere, zerbait idazteko asmoz; gure auzo honetan nobedade handirik gabe gabiltza, bakoitza bere eguneroko lanean murgilduta eta aste bukaera iristean pixka bat deskantsatu, mendi irteeraren bat egin, lagunarteko edo familiako bazkariren bat... Edozein erara izanda ere, ziztu bizian joaten zaigu astebukaera.

Mendiari dagokionez, Andatza KKEren eskutik aste polita izan dugu 9tik 14ra bitartekoa. Antolatu duten mendi astearen barruan, Udarregi ikastolan hainbat diapositiba emanaldi eskeini dira. Edurne Pasaban ere aurrez aurre eza-gutzeko aukera izan dugu. 13an, berriz, Buruntzaldera ibilaldia egin zen, eguraldi ederrarekin, eta gero bazkari mundiala Andazpen. Hurrengo irteerarako ideia berriak aterako ziren baharbada. 14an, igandea, gaztetxoak ez zuten eguraldiarekin zorte handirik izan ibilaldi neur-tuan; pena zen benetan. Hala eta guztiz ere, ea animatzen diren hurrengoan ere parte hartzera.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi auzoan zehar



zeuden makal arbolak bota egin dituztela. Ez dakigu zein izan den arrazoia; agian luzeegiak zeuden eta kotxeren baten gainera erortzeko arriskua zegoen, edo zuhaitz zaharrak moztea erabaki dute eta gazteak uztea. Den dena moztu gabe enborra bada ere utz zitekeen, ezta? Edo akaso "makalegiak" zirelako moztuko zituzten. Zuhaitz bakoitzak bere bereizitasunak ditu eta kontuan hartu beharko lirateke. Gu ere ez gara beti oso bizkorak.

Atxegalde



JONE
EIZMENDI



AGUSTÍN
ESNAOLA

Santuenea

Auzotar bat, Txinatik

Orain dela hilabete pare bat pentsatu zuten bere bi lagunek eta berak Txinako hainbat hiriburu ezagutu behar zituztela.

Esan eta izan, pentsatu ahala jarri ziren martxan eta bi hilabetetan bidaia antolatu eta jadanik egun batzuk egin dituzte Txinako errepublikan.

Bidaia oso luzea gertatu zaie, aeropuerto eta hegazkinen barruan aspertu direla esan dit, baina denbora pasatzeko aukera bakarra txinoz hitz egiten zuen pelikula bat ikustea zen edo bestela lo egitea. Hegazkinaren barruan, jateko eskasa eta gainera makiltxoekin jan beharra.

Hiru lagun joan dira, eta gehien harritu diena, kalean ikusten diren txinatarren ugaritasuna izan da. Asko direla entzunda zeuden eta telebistan ikusita ere, baina han bertan egonik, harrigarria ematen duela, olatuak ematen dute eta denak txinatarrak, kanpotarrak beraiek bakarrik. Orain bai, denak bi edo hiru ezik, gurpilezko bizikletetan ibiltzen dira. Ez dago autorik, oso gutxi ikusten dira kaleetan. Taxia hartu nahi baduzu, ez itxaron hemen bezalako

bati, ez, hiru gurpilezko bizikleta bat, txinatar batek bultzaturik.

Harrigarria omen da hango bizimodua, Shangai hiriburu oso handia da, etxebizitzak Andatza adinekoak dira. Teknologia ez da falta, dena elektronikaz josita dago eta kalean ia denak mibiletik hitz egiten. Ez dute denbora asko egin Shangain eta beste hiriburu batera joan bezain pronto dena aldatu egin zaie, pasaia, jende mota, ingurua. Dena askoz txukunagoa, lasaiagoa eta turismorako prestatuagoa.

Herria, behartsu bizi omen da. Teknologia eta mobil asko ikusten da, baina pobretasuna handia ere bai. Hiriburu nagusietatik aldatzen bazara pixka bat, paisaia aldatu egin da. Behar handiak ikusten dituzu.

Orain arte ikusitakoetatik zerbait azpimarratuz gero, herriak berak duen usaimena dela esango luke. Ez da erreza esplikatzeko usain hori, baina berezia da, oso berezia... Jarraituko dugu bidaia kontatzen, hurrengo eta etorritakoan.

San Esteban Txiki Eguna



EIDER
JAUREGI

Urdaiaga

Konturatzerako urte amaierara iritsi gara berriro ere. Batzuetan denbora gero eta azkarrago pasatzen dela iruditzen zait baina presaka bizi garen mundu honetan uste dut fenomeno hau niri bezala beste askori gertatzen zaigula baina tira.

Dena dela, urte amaierak baditu hainbat jai egun eder. Normalean egun hauten jan, edan eta lo egiteko direla esan ohi da, eta egia esan ni ere antzeko zerbaitea etorri naiz. Jakina da abenduaren 26an San Esteban Txiki ospatzen dela, eta aurtengoa urtero legez, Jai Batzordeak meza osteko hamaiketako goxoa prestatuko du bertara hurbiltzen den jendearentzat. Egundat gehiago edo gutxiago jan edanean ze axola ote du ba. Beraz, badakizue, gonbitea luzatuta dago hurbildu nahi duen guztiarentzat.



Espero dugu giro ederrean ospatzea egundat hau eta alde zuzenetik Eguberri on eta urte berri on denoi.

Ormazarreta bidean arriskua

Ibiltzea ona dela eta, legunero joaten naiz beste lagun batzuekin Galarditik Sanarrieneko tunela dagoen tokira, ibilaldi polita da paraje ederra ikusteko aukera izaten dugu, ibaia alde batean eta zelaiak bestean.

Baina badago tarte bat Ormazarreta bidean porlana tortoka batzuk, argazkian ageri den bezala. Badauka bere arriskua, ibiliz goazela ez gara askotan konturatzen eta estropozu bat baino gehiago egin dugu, eta esan behar dugu jende asko ibiltzen den bidea dela, eta horregatik nire



mezua inork mina hartu baino lehenago konponzeko ardura hartu behar dela.

Jai zoriontsuak eta urte berri on!

Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Zubietako lanak (eta nekeak)

Zubietako plaza inguru osoa obretan dago, Zegon ere hain bizi, sutsu eta sukartsu ari dira lanean ezen askotan gerra bateko paisaia ematen duen: zuloak nonahi, zabor metak bazterretan —eta erdian—, garabien beso luzeak borrokan...

Herri lan guztietan bezala, hemen ere badira langileak eta bestelakoak: begiraleak, hiru begirale, hain zuzen. Langileak, gehienbat portuges. Bestelako horiek, euskaraz. Gainera, lehenengoak ez bezala, jai eta lanegun. Behin, xirimiripeko egun hotz hauetako batean, Oesteko pistoleroen traza hartuko nien hiruei, buruak esan ez balit Oesteko pistoleroak isil xamarrek zirela.

Hurrena, horietako bat ikusi nuen burua frontoi berriaren frontisaren kontra, geldirik. Ondoren makurtu, eta lurra miatzen hasi zen, luze. Nire artean esan nuen: gutxienez ehun euroko edo eraztuna erori zaiok... Beste behin, hor ari ziren paperen artean, ardaian, besoak haize-erroten palak baino azkarrago astinduz.

Zubietako Batzarrekoak dira, edo horiei laguntzen ari zaizkienak. Ardura: obrak begiraltzea, zaintzea. Eta ondo asko betetzen ari dira bizkarreratutakoa, alajaina. Irakeko ikuskariak baino zintzoago. Aukeran ondoegi, Donostiako teknikari baten batentzat.

Herrigintzak har lezakeen esan nahi behinena: herriaren alde eta musu truk. Ez da erraza horretan eta horrela aritzea, orduak eta orduak horretara emana: hau gaizki dago, hori zuzendu egin behar da... Lan horren fruitua? Guk eta gure seme-alabak hobeto ibiliko gara, eta gusturago, frontoi eta plaza bueltan.

Hiru dira begiraleak: Tomas, Fernando eta Josemi —Batzarreko Juanjo eta Imanol dituzte taldekideak, Donostiako teknikariek hartu behar dituztenean—. Zintzo-zintzoak ere ez dira, zer nahi duzue esatea. Orain dela gutxi galdetu nion bizilagunari: Eta hiru hauek Irakera bidaliko bagenitu, bertan, berreraikuntzan, lagun lezaten? Eta bizilagunak imintziorik gabe erantzun: Gerra txikia duk hura, hauentzako.

Zubietako



**PELLO
ARANBURU**

Ehun mila sinadura eta manifestazioa Elkarriren gizarte proposamena bultzatzeko

Dakizun bezala, Elkarrik manifestazio bat deitu du abenduaren 20rako Bilbon «Giza eskubideak eta herri borondatea errespetatu. Elkarrizketa eta akordioa proposamen guztien artean» lelopean.

Mobilizazio hau gizarteak hitza hartzeko ariketa bat da egungo egoeraren aurrean lau puntutako Gizarte Proposamen bat ezagutzera emateko. Lau puntuak manifestazioaren leloan jasota datozenak dira: (1) giza eskubideak errespetatu, (2) herri borondatea errespetatu, (3) elkarrizketa alderdianitza eta (4) akordio zabala. Lau puntu hauek gure herriko gizartearen gehiengoaren borondateak islatzen dituzte. Puntu hauek konponbide prozesu baten printzipioak dira eta oinarritzko konpromisoa erakusten dute.

Elkarrizketaren ukapenaren aurrean, manifestazioa eta lau puntu hauek gizartearen erantzun eraikitzailea ere badira. Euskal gizarteari proposamen desberdinen arteko

eztabaida politiko eta parlamentarioan parte hartzeko eskubidea ukatu nahi izatearen zentzugabekeriaren aurrean gizartearen erantzun eraikitzailea da. Elkarrizketa, proposamenak edo zenbait konponbide politiko judizialki kriminalizatzeko eta zigortzeko legeak aldatzearen zentzugabekeriaren aurrean gizartearen erantzuna da era positiboan egina.

Usurbilen 250 sinadura lortu nahi ditugu, helburu hau lortzeko zure sinadura eta 5 euroren laguntza behar ditugu. Horregatik anima zaitetz zure sinadurak gure egoitzara bidaltzera honako helbidera, Portuetxe 45C, behea 1, 20018 Donostia.

Abenduaren 20an, larunbata Usurbildik Bilborako autobusak antolatuko ditugu. Irteera 15.15etan izango da Udaletxearen parean. Zure izena emateko edo informazio gehiago behar izanez gero deitu 943-000600 telefonora edo honako helbidera idatzi: gipuzkoa@elkarri.org.

Usurbilgo Elkarr



BAKE KONFERENTZIA BERRIA DATORREN URTEAN BURUTUKO DA.

Manifestaziora joateko autobusa antolatu da

Abenduaren 20an, 17:00etan. La Casilla Plazan, Bilbon. Autobusa udaletxe aurretik aterako da 15:15ean. Izen ematea Lizardin 943 36 11 15 (abenduaren 18a arte).

Zumartekoak Gustura Guadalajaran

Kantuak herriak biltzen dituela diote, Usurbildiketa Guadalajararekin hala gertatu da behintzat. Zumartekoak abenduaren 5ean irten ziren Guadalajara aldera eta 8an itzuli ziren etxera. Bidaia luzea, nekagarria izan zen; baina guztiz positiboa bai eskolarentzat, bai ikasleentzat eta baita abiatu ziren gurasoentzat ere.

“Hator, hator” Teatro Realen

Kantatu eta bisitak egiteko denbora izan zuten Zumarte Musika Eskolakoeak. Bidean, Alcala, bertako Unibertsitatea eta Cervantesen etxeak bisitatu zituzten. Azken egunean, Madrilgo Teatro Realen egoteko aukera izan zuten. Zumartekoak han ere kantatu dutela esan dezakete. Antzokiko arduradunari bai- mena eskatu ostean, “Hator, hator” abestu zuten.



DATORREN URTEAN ISLANDIAKO “EUROPA CANTAT” JAIALDIAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO DUTE ZUMARTEKO KIDEEK.



AIZPURUA AUTOBUSAK

*Jai zoriontsuak opa dizkie
bezero eta lagunei.
URTE BERRIA asmo berriez
beteta etor zatzaiela!*

Telf: 943 36 32 90

Faxa: 943 36 32 96

e-maila: info@autocares-aizpurua.es

www.autocares-aizpurua.es



ESTRELLA

ASEGUROAK

Xabier Larrarte
Enpresaritzan lizentziatua

Mota guztietako aseguruak
zure zerbitzurako

Inbertsio aholkularitza

Urte berri on eta
jai zoriontsuak!

Zubiaurrenea, 10

Telf: 943 37 18 07- Faxa: 943 37 63 41





AIZPURUA

TELESFORO ARDOAK

Festetan zure mahaia
ondo hornitu nahi
baduzu, gurean
baduzu aukera!

Kale nagusia, 25
Telf: 943 36 12 00

Angulas Mayoza, s.l.

AGINAGAKO ANGULAK
BEREZKO BIBEROAK



Toki Berri, z/g
Telf: 943 36 15 94
Faxa: 943 36 25 73
AGINAGA

Zorionak eta urte berri on!



ESPAINIARI



euskal
herria

AITORTU

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!



BBVA

Errekutxiki kalea, 1 - 20170 USURBIL Tel: 943 377 155

Elexpe

Urte berri on!
ileapaindegia

Muna lurrea, 2
Telf: 943 37 04 62

ESTETIKA ZENTROA

- Bitileen trukaketa eta permanenentia
- L. sabelika
- Solariuma
- Tatuaiak



Gorriti

Kafetegia - edaritegia



kafe berezia

Zorionak eta urte berri on!

San Esteban, 8 - Telf: 943 36 27 70

IKUTZA

AROZ/EGIA



*Zorionak
eta
urte berri on!*

Ugarte, 4
Telf-Faxa: 943 37 12 21

Zure neurrira jazten dizugu etxea

**ESKATU AURREKONTUA
KONPROMISORIK GABE!**

*Mota, guztietako berrihantzak,
zaharberritze lanak, ateak, lurrak,
eshaileak, altzariak, bulegorako altzariak*

Intza

ileapaindegia



*Ileapaindegintza
Solariuma
Ileko tratamenduak:
kaspak, ile erorketa
Makilajeak*

Telf: 943 36 36 41



*Usurbilgo Eusko Alderdi
Jeltzaleak 2003 urte baketsua
opa dizue, Eguberrion!*

*Urte berri ona eta paketsua
opa dizuegu
usurbildar guztioi!*

**eusko
alkartasuna**



Ucineko langileek hilabete daramate greban

Azaroaren 17an mugarik gabeko lan uztea hasi zuten Jose Maria Ucin SA enpresako langileek. Antza, langile berriek soldata txikiagoak jasotzen dituzte eta desoreka hori salatzeko ekin zioten protestaldiari. Hilabete pasa da eta oraindik greban dira aluminioaren sektoreko langile hauek. Langileen hitzak jaso ditugu. Enpresako zuzendaritzak, ordea, ez du adierazpenik egin nahi izan.

Batzuen eta besteen soldaten parekotasuna aldarrikatzeko, protestaldian dira Ucineko langileak. 47 langile biltzen dira Ucinen, enpresa komitea ELAko bi kidek eta LABeko beste bik osatzen dute. LAB sindikatuko Patxi Lizaso da, hain zuzen, komite-buru. Aditzera eman digunez, "azken aldi honetan kontratazio berriak egin dira eta desoreka handia dago soldata mailan. Berriek gutxiago kobratzen dute". Protestaldi hauekin langile berri eta zaharren artean eman daitekeen diskriminazio egoera salatu nahi dute langileek.

Jubilazioak begibistan

Egoera hau etorkizunean errepikatu daiteke. Izan ere, langile asko denbora epe labur batean jubilatatu egingo baitira. Hauen orde, "soldata bajuko kontrata-



SOLDATEN PAREKOTASUNA ALDARRIKATZEN ARI DIRA UCIN ENPRESAKO LANGILEAK.

zioak egin ditzakete, beraz, oraingo kezka hau berriz errepikatu daiteke etorkizunean", azaldu digu Patxi Lizasok, Ucineko langileetako batek.

Eskaera gehiago

Horretan datza langile eta enpresaren arteko gatazkaren zioa. Aldarrikapen nagusia soldaten arteko parekotasuna bada, badira bestelako eskaerak. Ucineko langileek soldaten igoera eskatzen ari dira. ETT bidezko kontratazio orokorra omen da, gainera, eta joera

horrekin amaitzea eskatzen ari dira. Lan-orduen murrizketa ere bada langileen aldarrikapenetako bat. Eta begibistan diren jubilazioen kasuan, tramitazio horiek erreztea eskatzen ari dira.

Abenduaren 1ean bildu ziren enpresako abokatuarekin. Baina Patxi Lizasok esan digunez, "enpresan ez da mugimendurik eman baina gu lan uztearekin jarraitzeko prest gaude".

Ucineko zuzendaritzaren hitzak jaso nahi genituen baina ez dute adierazpenik egin nahi izan.

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

EUSKAL OKELA

CAJAS DE VALLEJO DE SAN PEDRO DEL TALLER

h k k l , 4
T H 43 3 57 42

LK T
UT ZE ITZU

F HT K
ZKI K
HTU K
K NOEL TU K

ETXEK

PATXI

JABETXEA

- Eguneroko merkatuak
- Plater karamaitzak
- Ogintzetak

Telf: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

JU NTX

ur n
k l n us l Usur l
57

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

IGELTSE ITZ
t
INTU

943 36 20 26
687 95 12 25

H ur
ntz. k

Pauma

Kale Nagusia, 14

Gabonetan ere Plis, Plas, Txalo ta Jolas!



ABENDUAK 23
Txotxongilo saioa.

Gabonak begibistan ditugu eta oporrak alaitu asmoz, bi ekitaldi antolatu ditugu. Udalaren laguntzaz, titiriteroak eta txotxongiloak bilduko ditugu Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitarauan.

Abenduaren 23ean, txotxongilo saioa

Abenduaren 23an txotxongiloak hurbilduko dira Udaregi Ikastolara, 17:00ak aldera. Ondoren, trikitixa kalejira pilotalekuraino.

Eta abenduaren 30ean, titiriteroak

Baina urtea amaitu baino lehen, beste ekitaldi ikusgarri baten lekuko izango gara: Sebastopoleko Titiriteroek abenduaren 30ean eskainiko digutena saioarena. Egun osoz pilotalekuan, gaztelu puzgarriak, futbolen-erraldoia, malabarrak eta makilaje-tailerrean jolas-teko aukera izango dugu. Dena musikaz girotua. Eta arratsalde partean, txokolate-jana denentzat!



ABENDUAK 30
Sebastopoleko Titiriteroak.

Elhuyarren lehen bi jokoak, Haritz Lizarralderentzat

Aurreko alean, Elhuyar Fundazioaren **A**bi jokoren zozketa iragarri genuen: "Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa" mahaiko jokoak eta "Piratekin matematikaren munduan 3", CDa. Haritz Lizarraldek eskuratu ditu Elhuyarren lehen bi opariak, egin genuen galdera ondo erantzun eta gero (erantzun egokia Usurbil zen). Elhuyar Fundazioari esker, beste bi opari ditugu gure irakurleen artean zozketatzeko.

Zein erreka igarotzen da Zubietatik Aginagara bidean?

- Oria.
- Urola.
- Erreka-txiki.



Galdera hau era egokian erantzuten baduzu zuretzat izan daitezke bi joko hauek.

Zure erantzuna bidali honako helbidera: erredakzioa@noaua.com. Baina abenduaren 29a baino lehen erantzun, ados?

Azken inkestak

Presoen aldeko ikurra berrezarriko al zenuke udal inprimakietan?

Bai	% 17.50
Ez	% 81.67
Berdin dit	% 0.83

Santo Tomas egunean txerria zozketatzearen aldekoa al zara?

Bai	% 68.00
Ez	% 20.00
Berdin zait	% 12.00

:: ASTE HONETAKO INKESTA ::

Gabonetan nor pasako da zure etxetik?

- Olentzero Hiru erregeak
 Olentzero eta erregeak Inor ez

Zure botoa eman

www.noaua.com gunean



Urtinea

L r k - L r l n r k

L r s r t k - K r k

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

G L

G

garraioak

ZABOR BILIAET

TELF: 943 37 01 46



URDANTZI IGELTSERITZA

urte berri on!



Tel: 943 363370
943 361489
649435475
649435476

LATAILLADE



ITURGINTZA



Iturgintza, gas,
berogintza eta
klimatizazio

INSTALAZIOAK eta
MANTENIMENDUAK



Zorionak
eta
urte berri on!

Tel: 943 36 33 48 - Mob: 609 888021



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
Usurbildar guztioi!*



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin elkarlanean



N • I

ileapaindegia



MIXTOA



- Solariuma
- Depilazioa
- Makilajea
- Manikura



Urte berri on!

ZUBIAURRENEA, 5-1.a - TELF: 943 36 19 51

LLOLI LIZARRALDE

ILEAPAINDEGI MIXTOA



- Azken teknikak
- Mozketa, kolorea eta orrazketak
- Depilazioak
- Estetika
- Manikura
- Frantsesa
- Pedikura
- Makilajea



Solarium bertikala,
Europear araudiaren barne.

**PREZIO BEREZIA FETETARAKO
ORRAZKETA ETA MAKILAJETANI!**

USURBIL AUTOAK

ZERBITZU OFIZIALA



- Era guztietako konponketak
- Direkzioa lerrokatzea eta orrekatzea
- Gasen analisisa

**KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**



Telf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92
Zumartegi industrialdea
Aitzexerre kalea, 1

txirriStra

TABERNA



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Zorionak eta urte berri on!

Kontseja zaharra, 13 Telf: 943 36 04 66

**Pintxoak, bokatak,
plater konbinatuak...**

Urte berri on!

Irroza kalea, 3

Telf: 943 36 13 98

TXIRIBOGA



**TABERNAN
NAN DITUGU**

PATRI JATETxea



ZORIONAK eta URTE BERRI ON!

Egunero bazkariak eta afariak

Kale Nagusia, 6 Telf: 943 36 27 25

MIKEL ARRAINDEGIA



**Urte berri on eta
jai zoriontsuak!**

Alperro buru, 1

Telf: 943 36 63 56



MANPEL, SA

**MOBILIARIOA,
BULEGOETAKO MATERIALA
ETA
LIBURUDENDETAKO ARTIKULOAK**

Ugaldea Industrialdea - Pabellón 19

Tfn.: 943 365 890 - 943 365 562

Fax: 943 371 683

20170 USURBIL (Gipuzkoa)

e-mail: manpel@manpel.com

Zorionak eta urte berri on!



ANGULAS
MANTEROLA



*Eguberri jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu
guztioi!*

Telf:943360777-faxa:943363585



Aginaga

ALBATASUNA KOOPERATIBA

Hemen izango dituzu
Trafikoko araudi berriaren arabera
erabili beharreko txalekoak:



Baita pentsu ekologikoak
ere:

Oilaskoentzako
Oiloentzako
arto alea
garo alea

Zaloa Arnaiz: "Egutegi berrian 48 baserriren irudiak jaso ditugu"

Ale honekin batera, 2004ko egutegia banatu dugu. Iazkoa bezalaxe, hau ere Zaloa Arnaizek osatu du baina honakoan inguruko baserrien irudiak bildu ditu.

Baserri batzuk ezagunak zaizkigu baina beste batzuk ezezagunak izango dira herritar askorentzat, ezta?

Halaxe da. Herrian baserri asko daude baina zoritxarrez horietako asko dagoeneko desagerturik daude. Egutegiak horietako batzuk jaso ditu eta baita oraindik gure artean zutik jarraitzen duten baserrien irudiak ere. Guztira 48 argazki jarri dira.

Jende askok zintzilikatuta dauka etxean edota lantokian NOAUA!ko egutegia. Denborarekin, Argia edo Arantzazuko egutegian arrakasta berbera eskuratu du egutegiak. Horrek ilusioz beteko zaitu, ezta?

Baietz esan beharra daukat baina ez dakit horrenbesteko arrakasta izatera helduko denik. Herritarrek gustokoa dutela jakitearekin bakarrik konformatzen naiz.



UDAL FOTOTEKAKO IRUDIEKIN OSATU DA EGUTEGI BERRIA.

Iaz bezala, Udal Fototekako irudiak erabili dituzu. Herritarren irudiak ere biltzen dituzu. Altxor preziatuan bilakatu da fototeka.

Udal fototeka udaleko argazkiez gain, herritarren eta hainbat talderen argazkiak gordetzen ditu eta nola ez, NOAUA! Kultur Elkartearenak ere. Milaka argazki ditugu esku artean eta dudarik gabe herriko altxor preziatuenetako batean bilakatu da. NOAUA! Kultur Elkartearen 2003 eta 2004ko egutegiak horren adibide garbiak dira.

BAZKIDEENTZAT OPARI BERRIA

Irudian agertzen den argitalpena banatu dugu NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen artean. Erosketa egunak izaten dira Eguberriak eta orrialde hauek lagungarri izan daitezke. Bazkideen artean



doan banatu dugu baina bazkide ez direnek bi euroren truke eskura dezakete. Erosketa arduratsua egiten lagunduko dizuelakoan, zorionak eta urte berri on!

DATORREN ZENBAKIA, URTARRILAREN 9AN

Gabonetako oporren ostean argitaratuko dugu datorren alea, 173. alea. Ordurako prest izango ditugu enkuadernaketarako tapak eta aurkibidea ere.

Ondo pasa eta datorren urterarte!

Abenduaren 22an, xextoen zozketa

Urtero, eguberrien inguruan, herriko produktuekin osaturiko hiru xexto zozketatzen ditugu. Bi, NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen artean banatuko ditugu; eta hirugarren xextoa, aldizkari honetan publikitatea jartzen duten bezeroen artean.

Bazkide zaretenok duela gutxi gutun bat jaso duzue. Gutun horren etiketan zenbaki bat agertzen da. Ondo gogoan izan zenba-

kia, horixe izango da zozketan sartuko den zenbakia.

Emaitzak noaua.com web gunean

Abenduaren 22an zozketa egin eta egun horretan bertan deituko diegu saridunei. Saridunen izenak noaua.com web guneko foroan ipiniko ditugu. Beraz, irabazleen izenak momentuan emango ditugu aditzera! Zorte on denei!




TXU

UT

r t

t mus k ts n

S n Est nk l , l
T I 3 3



TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k, k t k
t l t r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

Lagunen zerrenda murriztu nahi diete Oihana Lizaso eta Jokin Errastiri

Beste espetxe batzuetan bezalaxe, A Lamako gartzelan ere, lagunen zerrenda 10era murriztu nahi diete euskal preso politikoei. Honek zer esan nahi du? Aurrez zehazturiko 10 lagun baino ezin direla bisitan joan. Neurri honek ez die preso senideei eragiten. Oihana Lizasoren gurasoek esan digutenez, *“auto judizial batek arrazoia eman badie ere, lagunen bisitak murriztu egin nahi dizkiete”*.

“Atzo «Limitación de comunicaciones con amigos» izenburua zeraman agiri bat jaso genuen, non 10 lagunen zerrenda bat osatzea behartzen gintuzten, zuekin komunikatzen jarraitu ahal izateko. Justifika ezinak ziren argudioak irakurritakoan, patioko bankutxo batean eseri eta ohiko portzelanazko horma aurrean nuela, zutaz gogoratu nintzen, azken bisitan hitz egindakoaz, zure irribarreak, zure ahotsaz, zure agurtzeko eraz...”. 2003ko azaroaren 28ko Berria egunkarian irakurri genuen gutunaren pasartea duzue. Pontevedrako (Galizia) A Lamako euskal preso politikoen sinadura zeraman, tartean Jokin eta Oihanarenak. Neurri horri aurre egin asmoz, lagunen bisitei uko egitea erabaki dute A Lamako presoek. Beraz, protestaldiak irauten duen bitartean, soilik etxe-koen bisitak jasoko dituzte.



NEURRI HONEK EZ DIEI SENIDEEI ERAGITEN

Oihana Lizasoren gurasoak azaroaren amaieran izan ziren alaba bisitatzen. Lehen, Jokin eta Oihanarekin batera biltzeko aukera bazuten ere, orain aparte bisitatu behar dituztela esan digu Patxik, Oihanaren aitak: *“10:00etan Jokinekin bildu ginen, eta 12:00etan Oihanarekin”*.

Bisiten murrizketa-sistema horrek ez die preso senideei eragiten; lagunei, ordea, bai. Patxi Lizasok argitu digunez, *“auto judizial batek presoiei arrazoia eman badie ere, lagunen bisitak murriztu egin nahi dizkiete”*. Antza denez, Soto Del Realen hasi ziren neurri hori aplikatzen eta orain gainontzeko espetxeetara zabal-tzen hasi dira.

Oihana Lizaso Matxain
 C.P. A Lama- Mod.10
 Monte Racelo s/n
 36830 A LAMA (Pontevedra)

Jokin Errasti Elorza
 C.P. A Lama- Mod.1
 Monte Racelo s/n
 36830 A LAMA (Pontevedra)

Ramon Uribe Navarro
 Prisión Provincial - Mod. 2
 Tacope s/n
 01123 LANGRAITZ (Araba)

Xabier Aranburu Muguruza
 C.P. Herrera de la Mancha -
 Mod. 2 Apartado 77
 13200 MANZANARES
 (Ciudad Real)

Jose Domingo Aizpurua Aizpuru
 nº 20601T
 Maison d'Arrêt des Hauts de Seine
 13, av. Commune de Paris
 - B.P. 1414
 92014 NANTERRE
 Cedex - Frantzia

Karlos Martin Sanchez
 C.P. Madrid V
 Aptdo. 200
 28791 SOTO DEL REAL
 (Madrid)

Patxi Segurola Mayo
 nº 12172
 M.A. de la Seine-
 Saint Denis Avenue Vauban
 93422 VILLEPINTE
 Cedex - Frantzia

*Etxerat!ek 2003ko abenduan
 igorritako datuak.*

Etxerat!ek hainbat ekitaldi antolatu ditu

Etxerat! erakundeak hainbat ekitaldi prestatu ditu datozen egunetarako. Euskal Herriko herri guztietan bezalaxe, Usurbilen ere herriko presoiei postalak idazteko kanpaina egingo da. Bestelako deialdiak ere prestatu ditu Etxerat!ek.

Abenduaren 14an eta 24an, Etxerat!ek mahai bat jarriko du frontoi inguruan herriko presoiei postalak idatzi eta materiala saltzeko. Eta urtero bezala, abendu-

duaren 24an, arratsaldeko 16:00etan, preso aldeko Olentzeroa abiatuko da pilotalekutik. Entseguak abenduaren 15an eta abenduaren 22an egingo dira, arratsede 20:00etan Aitzagan (Amnistiaren aldeko taldeekin elkarlanean). Etxeratlekoek azaldu digutenez, *“azken urteetan amaiera bateratua egin izan dugu frontoian parrokiako jaiotzarekin batera, bi abesti elkarrekin kantatuz. Aurten ere eskaera egin diegu baina oraindik ez dugu erantzunik jaso”*.

Omenaldia, abenduaren 30ean
 Abenduaren 26an, arratsaldeko 20:00etan, Etxerat!ek kontzentrazioa egingo du "Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean. Eta abenduaren 30ean, arratsaldeko 20:00etan, pilotalekuan herriko gudari hilen oroimenez ekitaldi antolatu du Ezker Abertzaleak. Herriko sarreran dagoen errotonda ere, modu erreibindikatioan dekoratuko dira, herriko zortzi errepresaliatuen siluetak baserritarrez jantzita eta "Euskal Presoak Euskal Herrira" zapi daramatela.

ALKORTA AUTOSERBITZUA

- FRUTAK
- BARAZKIAK
- Elxeko produktuak:
Ixorizoa, oholkia, kroketak...
- Kongelatuak



Behoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Ondo para Santixabelak!

Gabon hauetarako zure oparia
inoiz baino errazago



centro de masaje
uma
masaje lekua

Kale nagusia, 10 - Atzekaldea - Tfnoa.: 659 04 34 86 - USURBIL

ASTIAZARAN SAGAR DOTEGIA

Irudi berria...



Urtarrilaren 8-tik aurrera

denboraldi berri batentzako

Zubieta, Telf: 943 36 12 29





TXINPARTA

SAGARDOTEGIA - JATETXEA



Razioak, bazkariak, afariak
pintxoak, plater iberikoak

Urbil merkataritza gunea

Telf: 943 37 66 98

PEREGRINUS

GARAGARDOTEGIA

Plater konbinatuak
Hanbursesak
Sandwichak
Pintxoak



Urbil merkataritza gunea



GIRO ATSEGINA

INPORTAZIOKO GARAGARDOA

PLATER KONBINATUAK



URBIL MERKATAL ZENTRUA

TXINPARTA

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

Razioak, bazkariak, afariak, pintxoak eta plater iberikoak



Telf: 948 15 18 31

La morea zentro komertziala (Iruña)

AUTO ESCUELA

LASARTE s.c.

Orain, 18 urte bete baino sei hilabete lehenago atera dezakezu teorikoa. Selektibitatean buru belarri sartu baino lehenago, teorikoa atera dezakezu.

C/ Nagusia, 5 - Entría,
☎ 37 64 97

60160 LASARTE-ORIA
(Gipuzkoa)

LOURDES LARRAÑAGA

Estetika zentroa

Zorionak eta urte berri on!



Depilazioa laser medikuarekin

MARGOAK - PAPERAK

**FERNANDO
PINTORAK**

ENPAPELAKETAK ETA
PINTURAK OROKORREAN

Jai zoriontsuak eta
urte berri on!



Mota guztietako errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak
Pankartak - Kartelak...

Kale nagusia, 10
Telf/Fax: 943 36 60 21

Ondo pasa jaiak!



Kinkildegia

Lentzeria, arropa,
Haurren jantziak,
etxerako behar
dituzunak.

Ondo pasa jaietan!

Zubiaurrenea, 3 Telf: 943 36 17 87



PORTURRALUME

Iturgindegia
Bainuko altzariak


Zorionak eta
urte berri on!

Telf: 943 36 45 37 (denda)
943 36 52 00 (etxea)

Kale nagusia, 10

LABE GOXO

Okindegia - Gozotegia



Urte berri on
eta jai zoriontsuak!

Kale nagusia, 2
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13




TRUKE

Gabonen
ondoren...

Beherapenak!

Ondo pasa gabonak eta urte berri on!

Ilrdiko kalea, 7
Telf: 943 37 34 81



LAUROK
Liburudenda

Zure gabonetako
erregalia erosteko
etorri gurera!

Ondo pasa jaiak!

Alperrobura kalea-behea Telf: 943 36 34 48

ALDATZ ■ **KIROL MODA**



Festen ondoren
BEHERAPENAK!

Alperro buru, 2
Telf: 943 36 65 42

Aginaga eta Peña Pagolako elkarteak nagusitu ziren VI. Mus Txapelketan

Azken asteotan lagun askoren aho-atan egon da mus txapelketa, bereziki, parte hartzaileen artean. Elkarteen Arteko VI. Mus Txapelketaren finalean Gorka eta Joseba (Aginaga) izan ziren jaun eta jabe.

Sailkapena eta sariak

- 1.- Gorka-Joseba Larburu (Aginaga K.E.). Saltxipin afaria, 2 arkume, 4 ardo botila, 4 txanpain botila.
- 2.- Anjel-Rufino (Peña Pagola). Olarrondon afaria, 4 txuleta, 4 ardo botila, 2 txanpain botila.
- 3.- Pepe-Manolo (Eguzki). Atxegan afaria, 2 gazta, 4 ardo botila, Mayoz gula kaxa.
- 4.- Joxe-Jexux (Peña Pagola). Txitxardinaren afaria, 6 txakolin botila, Mayoz gula kaxa.

Elkarte guztien izenean, eskerrak



eman nahi zaizkie ondorengo jatetxe eta sagardotegiei. Hauen lana goraiatu nahi dute elkarte guztiek, "txapelketan azaldu duten laguntza eta bultzadagatik": Antxeta, Araeta Sagardotegia, Aginaga Sagardotegia, Atxega Jauregia, Patri, Alamandegi, Saltxipi, Olarrondo, Txitxardin Beltza, Tragoxka.

Mus Txapelketa azkarra Antxetan

ABENDUAK 24, ASTEAZKENA
Mus txapelketa berezia eta azkarra. 16:00etan hasiko da izen-ematea eta 16:30etan egingo da zozketa.
Lehen saria: trofeo, txapela, arkumea, langostino 2 kg, gabonetako lotea.
Bigarren saria: arkume bat, gabonetako bi lote. Hirugarren saria: 6 txuleta, gabonetako bi lote. Laugarren saria: 4 txuleta, gabonetako bi lote.
Izen-ematea: 20 euro.

ABENDUAK 31, ASTEAZKENA
Mus txapelketa berezia eta azkarra. 16:00etan izen-ematea, 16:30etan egingo da zozketa.
Lehen saria: trofeo, txapela, arkumea, langostino 2 kg. Bigarren saria: arkume bat. Hirugarren saria: 6 txuleta. Laugarren saria: 4 txuleta.
Izen-ematea: 16 euro.

VI. MUS TXAPELKETA, URRATSEZ URRATS

Aginagako Gorka-Joseba bikotea Agailendu zen finalean baina lehia-ketan gehiago izan dira. Hementxe dituzue partida guztien emaitzak.

FINALA

Gorka-Joseba (Aginaga) / Anjel-Rufino (Pagola)

3/4. POSTUAK

Pepe-Manolo (Eguzki) / Joxe-Jexux (Pagola)

FINAL ERDIAK

Gorka-Joseba (Aginaga) / Pepe-Manolo (Eguzki)
Joxe-Jexux (Pagola) / Anjel-Rufino (Peña Pagola)

LAURDENAK

Gorka-Joseba (Aginaga)/Pako-Lertxundi (Andazpe)
Anjel-Rufino (Peña Pagola)/ Andoni-Laki (Aitzaga)
Pepe-Manolo (Eguzki)/ Antxon Alfredo (Eguzki)
Moises-Joxemari (Ibai-Ondo)/Joxe-Jexux (Pagola)

ZORTZIRENAK

Gorka-Joseba (Aginaga)/ Joxe Ramon-Zumeta (Andatzpe)
Joxe-Jexux (Pagola) / Mikel-Jon (Joko Garbi)
Joxemai-Koldo (Mahazpildegi)/ Andoni-Laki (Aitzaga)
Inaxio-Joxemari (Mahazpildegi) /Pako-Lertxundi (Andazpe)
Anjel-Rufino (Peña Pagola) / Martin-Felix (Joko Garbi)
Ramon-Martin (Ibai-Ondo) / Antxon Alfredo (Eguzki)
Moises-Joxemari (Ibai-Ondo)/ Alberto Abbat (Aginaga)
Iñaki-Etxarri (Aitzaga) / Pepe-Manolo (Eguzki)

EUSKADI-URUGUAY FUTBOL PARTIDARA JOATEKO AUTOBUSA

Euskal selekzioa Uruguaykoaren aurka arituko da abenduaren 27an. Partidara joateko autobusa antolatuta da herrian. Izena eman nahi duena kiroldegira hurbildu dadila.

JENDE UGARI BILDU ZEN MENDI ASTEAN

Andatzaren Lehen Mendi Astea ez zen oharkabeen pasa. Eudurne Pasabanek jende asko bildu zuen baina gainontzeko diaporamak eta ekitaldiak ere jendetsuak izan ziren. Zorionak denei, bereziki Andatzako kideei!



Hurrengo saioak !

FUTBOLA

Abenduak 20, larunbata
Emakumezkoen liga: Usurbil FT - Amaikak Bat.
Erregionalen 2. maila: Idiazabal KE - Usurbil FT.
Kadeteen 2. maila: Kostkas-Miren - Usurbil FT.



Urtarrilak 3, larunbata

Emakumezkoen liga: Hernani CD - Usurbil FT.
Kadeteen 2. maila: Usurbil FT - Amara Berri KIE

ESKUBALOIA

Abenduak 20, larunbata

Helduak: Atsedan.
Kadeteak: Bergara - Usurbil KE.

Urtarrilak 10, larunbata

Helduak: Ormaiztegi KE - Usurbil KE.
Kadeteak: Usurbil KE - Urola Lazti.

Urtarrilak 17, larunbata

Helduak: Hegalde Auto - Usurbil KE.
Kadeteak: CB Leizaran - Usurbil KE.

OHARRA

Abenduak 27, larunbata

Euskadi-Uruguay futbol partida. Partidara joateko autobusa antolatuta da. Izena emateko kiroldegira hurbildu.

409 etxebizitza berri egingo dira Olarriondon

Azkenean adostasuna nagusitu da, Aeta honi esker, aurrera egingo du Olarriondoko urbanizazioak. Hori bai, jabeek aprobetxamendu urbanistiko gehiago eskuratuko dituzte, eta hori etxebizitzaren eskaintzan igarriko da. Udalak eta lur jabeek berriki sinatu duten hitzarmenaren ostean, Olarriondon proiektu hau garatuko litzateke: 120 etxebizitza babes ofizialekoak, 23 sozialak, 146 salmenta librekoak eta 120 tasatuak.

Legeak baimentzen duen etxebizitza kopuru handiena egingo da Olarriondon: hektarea bakoitzeko 75 etxebizitza. Etxeen prezioak kalkulatzeko, 70 metro karratuko etxebizitza bat hartu dugu eredu moduan. Babes ofizialeko bat, 100.000 euro (16 milioi eta erdi pezeta). Tasatua, 150.000 euro inguru (25 milioi pezeta). Eta salmenta librekoa, 265.000 eurotik gora (44 milioi pezeta, baina 90 metroko etxebizitzak). Kalkulu hauek gutxi gora beherakoak dira. Izaera sozialeko beste 23 etxebizitza egingo

dira, Udalak alokairu bidez kudeatuko dituenak.

Nolakoa da etxebizitza tasatu bat?

Erdibideko zerbait da. Etxebizitza tasatuari prezio maximo bat jartzen zaio eta ezin da hortik pasa. Betebeharreko baldintza ekonomikoak, bestetik, ez dira babes ofizialekoak bezain mugatuak. Gainera, 20 urte pasa arte, erosleak ez du etxebizitzaren jabetza osoa eskuratzen. Hori esker, tasatuaren erosleak ezin du 20 urtetan nahi duen eran, nahi duen prezioan saldu. Tasatuak ere, zozketa bidez esleituko dira eta Udalak berak egingo du zozketa.

Bi urtetan zozketak eginak

Plan Partziala behin betiko onartu, lur zatiketa proiektua egin, urbanizazio proiektua bideratu... Gauzak ondo joanda, urtebeteko epean zozketarako zerrenda-osaketa martxan izango da. Asko jota, bi urtetan zozketak eginak izango dira.



EA eta EAJ-PNV sintonian

Azken hilabeteotan, akordio garrantzitsuetara iritsi dira EA eta EAJ-PNV alderdiak. Luis Mari Ormaetxea alkaterearen esanetan, "egia da sintonia gehiagorekin gabiltzala, baina akordio puntual bat izan dela esango nuke. Lehendabiziko akordio garrantzitsua. Gauzak hobetzen joan dira. Epe motzean ez dut uste gobernu formal batean bukatuko dugunik, baina bide onetik goaz".

Luis Mari Ormaetxea, EA: "Lur jabe guztien adostasuna lortu dugu"

"Usurbilen hurrengo urteetan egingo den aktuazio garrantzitsu hau ez dugu atzeratzea eta korapilatzea nahi, horregatik, dena ondo argitua eta lotua utzi nahi izan dugu hitzarmen baten bidez. Aurreko korporazioak ez bezala, lur jabeen %100ren adostasunaren bila joan gara, eta lortu ere. Lur jabe asko dira, bakoitza bere interesekin, bakoitza bere abokatu eta aholkulariekin, jende askorekin hitz egin behar. Luze jo du guztiak, baina merezi izan du, zeren hemendik aurrera aktuazio horren garapenak ez du oztopo nabarmenik izango".

Pedro Ibarra, EAJ-PNV: "Herriak onura gehiago jasoko ditu hitzarmen berri honekin"

"Abenduraren 12ko udalbatzan onarturiko proiektu berriak onura gehiago eragin ditu. -Onura gehiago lur jabe diren baserriarrentzat. Metro karratuko 7 mila pezeta jaso beharrean 18 mila irabaziko dituzte. -Sektore honetan etxe baten jabe egin nahi dutenentzat ere onuragarria da akordioa. Etxebizitza mota dibersifikatu egin delako (BO 120, tasatuak 120, libreak 142). -Herriak ere etekin gehiago jasoko ditu. Izaera sozialeko 23 etxebizitza (aurreko legealdian 20 aurrikusi ziren). Lur jabe denek bat egin dute Udalak eskainitako akordioarekin. Zorionak denoi!".

Arantxa Manterola, UHL: "Babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua erdira jeitsi da"

"Zaila zaigu balorazioa egitea, Ormaetxearen jarrera dela-eta, informazio zehatzik ez baitugu. Halere, dakigunez, aurreko proiektuarekin konparatuta, lur-eremua ez da handitu baina aprobetxamendua bai. Bestalde, babes ofizialeko etxeen kopurua erdira jaitsi da. Beste erdia, tasatua izango omen da. Gaitzerdi! Ikusi egin behar prezioaren muga errespetatzen den. Dena dela, diru-sarrerera nahikoa ez izateagatik babes ofizialekora iritsi ezin duten herritarren beharrei erantzutea ere lehentasuna izan beharko luke".

Amaya Goyaran, PSE-EE: "Aukera guztien artean, egokiena"

"Etxebizitzaren %100a babes ofizialekoak izatea nahi genuen. Sozialistook uste dugu, herritarren etxebizitza-beharrak asetzen ez diren bitartean, bereziki gazteenak, ahalegina berezia egin behar dela salneurriak ahalik eta baxuenak izan daitezten. Baina lur jabeak ere kontuan hartu behar dira agrabiorik eman ez dadin. Promozio osoa babes ofizialekoa izatea ezinezkoa izan denez, Hirigintza Batzordeak aurkeztu duen hitzarmena babes-tu dugu, aukera guztien artean egokiena iruditu zaigulako".

Manuel Michelena, PP: "Hitzarmen orekatua adostu dugu"

"Ez da zehazirik egon Olarriondo sektoreko etxebizitzaren hitzarmenaren. Babes ofizialeko 240tik erdiak tasatuetan bilakatuz, hiru arazo nagusiak konpondu ahal izan dira: 1) diru sarrerengatik, babes ofizialeko mugak gaitzerdi eta etxebizitza libreterara iritsi ezin direnei aukera eman zaie. 2) Guztiz ez bada izan, lur jabeek euren aurrikuspenak asetu ahal izan dituzte. 3) Zesio urbanistikoaren bidez, herriak aurreko hitzarmenak aurrikusi baino konpentsazio gehiago jasoko ditu. Hitzarmena orekatua adostu dugu, denen gustukoa".

Jokoan ziren arau subsidiario berriak

Olarriondoko hirigintza proiektuan gauza asko zeuden jokoan. Baina konponbiderako giltza lur jabeen esku zegoen. Azkenean, Udalak egindako proposamena onartu dute lur jabeek eta bi arazoak bideratu ahal izan dira: etxebizitza berrien eraikitze-prozesua eta arau subsidiario berrien tramitazioa. Arau berriak abenduaren 30eko ohiko plenoan onartu eta Foru Aldundiara igorriko dira.

Olarriondoko akordioa ez da erraza izan, eta azkenean, hasiera batean aurreikusi baino babes ofizialeko 120 etxebizitza gutxiago eraikiko dira.

Ez da erraza Olarriondoko operazioa azaltzea. Etxebizitza operazio bati buruz ari gara, baina baita arau subsidiario berrietaz. Arau subsidiarioak (AASS), herri baten errepide mapak dira. Etorkizuneko herria eraikitzeke betebeharezkoa den arautegia, hiri-antolamendua garatzeko "bruxula". Bada, Olarriondoko operazioa lur jabeekin adostu arte, kolokan izan dira AASS berriak. Eta gaia konplikatu bada, pentsa, tartean hauteskundeak eta udal gobernu aldaketa eman bada. Kronologikoki aztertuko dugu hizpide dugun gaia.

Hasiera batean, EHren garaian, Olarriondoko lurak desjabetzapena bidez eskuratu eta babes ofizialeko (BO) 264 etxe eraikitzea aurrakusi zen. Proposamen hori horrela jasota geratu zen 2003ko martxoaren 20an, Hiri Antolamenduko AASSen berrazterketa proiektua hasieraz onartu eta hilabetez jendaurrean ipini zenean. Oposizioan ziren EA eta EAJ-PNV alderdiak aurka azaldu ziren, besteak beste, udalak ez zuela promotore lanetan aritu behar argudiatuz. Gainera, oposizioak zalantzan jartzen zuen proposamen horren bideragarritasun ekonomikoa. Lur jabeek, ordea, alegazioak egin zituzten. EHk, orduan agintean zen, babes ofizialeko etxebizitzak lehenbailehen eraiki zitezen eta operazioaren interes soziala mantenduz, lur jabeekin oinarrizko adostasuna lortzeko, Artzabalgoaren antzeko proposamena mixtoa egitea erabaki zuen: babes ofizialekoak 240 etxebizitza; eta

salmenta librean, 146. Babes sozialeko beste 20 etxebizitza Udalaren esku geratuko ziren alokairuan jartzeko. Guztira, 406 etxebizitzako operazioa zen. Lur jabeek aprobetxamendu urbanistiko gehiago eskaintzen zitzaizkien. Guk dakigula, lur jabe batzuen aholkulari ziren bi inbiliaria eta abokaturentzat, eskaintza onartzeko modukoa zen.

Joxe Antonio Altuna (EH) oraindik alkate zela, 2003ko maiatzaren 22an, Udalak zera erabaki zuen:

- Lurjabeekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea.

- AASS berriak behin behingoz onartzea, Olarriondoko sektorea eta Zubietako beste bat izan ezik. Eta hauek Foru Aldundiara bidaltzea behin betikoz onar zitzan.

- Olarriondoko Sektorea eta Zubietakoa hasieraz onartzea eta hilabetez jendaurrean ipintzea. Epe honen ostean, balizko alegazioak aztertu eta erantzun ondoren, behin behingoz onartu eta hauek Foru Aldundiara bidali ziren, honek behin betikoz onar zitzan.

Baina 19 lur jabetatik soilik 12k sinatu zuten aipatu hitzarmena. Eta eragindako azalerari dagokionez, proiektuak eskatzen zuen lur azaleraren erdira ere ez zen iristen sinatzearen alde zeudenen lurrak. Sinatu ez zutenek, gainera, AASSetan jasotako zehaztapen berriei (240 BO/146 libre) alegazioak jarri zituzten, salmenta libreko etxebizitza gehiago jartzeko eskatuz.


Tartean hauteskundeak

Baina hauteskundeak iritsi ziren, alkatetzan aldaketak eman ziren eta Olarriondoko arau berriak argitzeke zegoen. Luis Mari Ormaetxea alkateak zuzentzen duen udal korporazioak bi aukera zituen:

1. Hasierako planteamendura bueltatu (desjabetzapena bidez lurrak eskuratu eta babes ofizialeko 264 etxebizitza eraiki).

2. Lur jabeekin berriz negoziatu, eskaintza hobetu eta hitzarmen berri bat adostu.

Bigarren aukerarekin bat egin zuten EA, EAJ-PNV eta PPK. PSE-EE etxe denak babes ofizialekoak egitearen alde azaldu zen. Hitzarmen berriaren arabera, Olarriondoko proiektua honela laburbil-



TASATUAK, BABES OFIZIALEKOAK ETA SALMENTA LIBREKO ETXEAK ERAIKIKO DIRA OLARRIONDON.

du daiteke:

- Salmenta librean, 146 etxebizitza.
- Tasatuak, 120 etxebizitza.
- Babes ofizialekoak, 120 etxebizitza.
- Alokairu sozialean, 23 etxebizitza.

Desadostasunak bidean

Duela hilabete adostu zuen proposamen hau hiru alderdiren artean. Berehala, lur jabe guztiei helerazi zitzaizkien eskaintza eta bilera bat ere egin zen hitzarmenaren funtsa azalduz. Baina lur jabe batzuk ez zeuden konforme hitzarmenarekin eta aprobetxamendu urbanistiko gehiago eskatzen zuten. Hori azaroaren 21eko kontua da. Udalak, sorpresaz hartu zuen berria. Izan ere, lehen baino hiru aldiz gehiago eskaintzen zitzaizkien lur jabeek. Eta Olarriondoko argitu arte, ezin arau subsidiario berriak bideratu.

Zirt edo zart

Abenduaren lehenean, Luis Mari Ormaetxea alkatea zirt edo zart egiteko prest zegoen. Lur jabeek hitzarmen berria sinatzen ez bazuten, alkatea lehen planteamendura itzultzeko prest zegoen: desjabetzapena bidez lurrak eskuratu eta babes ofizialeko 264 etxebizitza eraiki. Duela egun gutxi, ordea, lur jabe denak akordioarekin bat egin zuten. Adostasunak Olarriondoko operazioa azkartu eta arau subsidiarioen erabakia desblokeatu du.



Jorge Oteiza ezagutzen al



Kaixo laguntxoak! Gu 5 urteko haurrak gara eta oraingo honetan Jorge Oteizaz idatziko dugu, bale.

JORGE OTEIZA

Bizarduna zen, bizar zuria zeukan. Eskulturak egiten zituen handiak eta txikiak. Orion jaio zen eta joan den urtean hil zen Zarautzen, urte asko zituen eta.

Jorge Oteizaren eskulturak ikusita, guri ere berdintsuak egitea bururatu zaigu.

Tizekin egin ditugu eskulturak, tizak kolatuta. Oso politak geratu dira, zuek ere egin al dituzue? Oso erraza da. Animo eta egin, eh!



GORKA OTEIZARI ABESTEKO

Entzun nahi duenentzat hamalau Gorkaren
 Gorkaren irudiak salatzen
 hamalau atetikan karraxi
 hamalau harri isilik bilutsik
 harriaren hutsetik ohiuka
 harriaren tartetik kantari
 nora zoazte gogorak oharrak aitu gabe...

Udarregi H.H 5



Olentzerorekin solasean

Udarregi ikastolako 4 urtekoen gelakoak gara. Koadrila galanta osatzen dugu denon artean. Txirritx izeneko kilkerra dugu aurten bidelagun eta primeran pasatzen dugu berarekin. Txirritx oso kuxkuxeroa da eta asteburu guztiak Euskal Herriko bazterrak miatzen igarotzen ditu. Oraingoan Nafarroako txoko batean Olentzerorekin topo egin du eta galdera hauek egiteko aukera izan omen du.

TXIRRITX: Zein da zuri gehien gustatzen zaizun janaria Olentzero?

OLENTZERO: Ez dago gustatzen ez zaidan janaririk, baina dena dela, gehien gustatzen zaidana, taloa esne beroarekin da.

TXIRRITX: Nola konpontzen zara tximiniatik sartzeko?

OLENTZERO: U! Ahal den moduan moldatzen naiz.

TXIRRITX: Zenbat pisatzen duzu?

OLENTZERO: Ez dakit ba... Baina badaezpada ez naiz asto-txoaren gainera igotzen, nire pisuarekin agian ezingo luke eta...

TXIRRITX: Zergatik daramazu beti txapela jantzita?

OLENTZERO: Hotz haundia egiten duelako eta bestela burua bustitzen zaidalako.

TXIRRITX: Andregairik ba al duzu?

OLENTZERO: Jakina Maria Domingi du izena eta

Zugarramurdiko festetan ezagutu nuen orain dela lau bat urte. Niretzat munduko neskarik politena da eta asko maite dugu elkar. Azkenaldian, biok jardute gara opariak banatzen, eta noski, horrela askoz ere errazagoa egiten zaigu banaketa.

Bueno Txirritx esan Usurbilgo haur guztiei Gabon gauean turroia eta edateko zerbait jartzea ez ahazteko. Txintxo portatu!



MARRAZKIA MARGOTU

Lehiaketa !

NOAUA!ko LEHIAKETA!!

2003ko Noauako azken lehiaketa!!

Bi galdera hauen erantzunak bidaltzen badituzue sari eder hau irabazteko aukera izango duzue.

Animatu eta parte hartu!!

Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Uguzkitzaldea, 20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Noaua! Kultur Lilkarteko buzoian

F-maila: erredakzioa@noaua.com

Erantzunak bidaltzeko azken eguna URTARRI.AK-4

1. Nola izena du herriko AEKko euskaltegiak?

2. Esango al zeniguke Korrika 13 zein hilabete eta egunean pasa zen Usurbildik?

SARIA:

Elhuyar-en BERTSOEN MUNDUA eta EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK cd-ak

Bertsoen mundua

- * Bertso-doinuak, bertsolariak, bertso-antologia, txapelketak, bertsolaritzaren oinarriak, jokoak...
- * Lau ordu baino gehiagoko audioa
- * Bideoak, argazkiak, testua, jokoak
- * Milaka bertso



Euskal Herriko soinu-tresnak

- * 92 soinu-tresnaren fitxak eta 250 argazki
- * 2 ordu inguruko audioa
- * 22 bideo-zati tresnak egiten ikasteko lantegia, eta horien egitura, erabilera, jotzeko era, historia, bibliografia...

171. lehiaketako erantzunak hauek dira:

1. Usurbilgo Udalak Euskal Herriaren Independentziaren aldeko adierazpena zein urteran egin zuen? 1991an
2. Udal Euskaldunen Mankomunitateak (UEMAk) antolatuta, 1999ko abenduaren 31ean zer ospatu zen Usurbilen? EUSKARAREN ALDEKO URTEZAHAR FESTA, MILURTEKO AZKEN JAIA.

Irabazlea MIKEL ALIUBE izan da. Argiaren "Badakit" mahai jolasa, "Zaxpiak batzuen" kamiseta eta "Sustraitatik adarretara, euskara" musika cd a irabazi dituzu. Jaso ezazu saria Noauako egoitzan. ZORTONAK eta URTE BERRI ON!!!



Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.15	09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05		12.30
13.00	13.25	13.35	13.55 #	11.45	12.05	12.15	12.40
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05		13.30
14.00	14.20	14.30**		12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.25	14.35	14.55		13.30	13.35	13.55*
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05		14.30
15.00	15.20	15.30		13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.25	15.35	15.55		14.30	14.35	15.00
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05		15.30
16.00	16.25	16.35	16.55	14.45	15.05	15.15	15.40
16.40		17.05	17.25		15.30	15.35	15.55*
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05		16.30
17.40		18.05	18.25	15.45	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.30			16.30	16.35	17.00
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05		17.30
18.40		19.05	19.25	16.45	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55 #	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00:00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02:00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04:00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06:00		06.25	06.45				

**Aiarrino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiaira

Soilik larunbata gauzez Asteburutan Larunbat lanegunetan

Goardiako farmaziak

Abenduak 19, ostirala E/G: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte	Urtarrilak 1, osteguna E: Gil, Nagusia 24, Lasarte
Abenduak 20, larunbata E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte	G: Bulnes, Grupo Etxeberria 1, Hernani
Abenduak 21, igandea E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte	G: Urtebe, Grupo Etxeberria 1, Hernani
Abenduak 22, astelehena E/G: Gil, Nagusia 24, Lasarte	E: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
Abenduak 23, asteartea E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte	G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani
Abenduak 24, asteazkena E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte	Urtarrilak 3, larunbata E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte
Abenduak 25, osteguna E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte	G: Correa, Perkaiztegi 8, Hernani
Abenduak 26, ostirala E/G: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte	Urtarrilak 4, igandea E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte
Abenduak 27, larunbata E: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte	G: Correa, Perkaiztegi 8, Hernani
Abenduak 28, igandea E: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte	Urtarrilak 5, astelehena E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte
Abenduak 29, astelehena E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte	G: Aizpuru, Latxunberri berri 11, Hernani
Abenduak 30, asteartea E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte	Urtarrilak 6, asteartea E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte
Abenduak 31, asteazkena E: Gil, Nagusia 24, Lasarte	G: Echeveste, Elkano 2, Hernani
G: Gomez, Nagusia 14, Hernani	Urtarrilak 7, asteazkena E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte
	G: Bilbao, Urbieta 7, Hernani
	Urtarrilak 8, osteguna E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte
	G: Zatarain, Elizondo 6, Andoain
	Urtarrilak 9, ostirala E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte
	G: Ansa, Ondarreta 8, Andoain
	Urtarrilak 10, larunbata E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte
	/ Iturralde, Bordaberri 1, Usurbil
	G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani
	Urtarrilak 11, igandea E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte
	G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

E:Egunez G:Gauzez E/G:Egunez eta gauzez

2004ko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN Zubieta-Donostia 7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazaatik) 7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45
LARUNBATETAN Zubieta-Donostia 8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazaatik) 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
JAI EGUNETAN Zubieta-Donostia 11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazaatik) 11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Bai esan?

• Udala.....	37 19 51
• Udaltzaingoa.....	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak.....	37 01 48
• Anbulategia.....	36 20 13
• Udarregi ikastola.....	36 12 16
• Udarregi (Kalezar).....	36 45 00
• Agerialde ikastetxea.....	36 38 95
• Oiardo kiroldegia.....	37 24 98
• Zumarte.....	37 15 94
• Etumeta.....	37 20 01
• Taxi geltokia.....	36 21 78
• D.Y.A.....	46 46 22
• Ertzaintza.....	112
• Suhiltzaileak.....	112
• Larrialdia.....	112
• Anbulantziak.....	112
• Gure Pakea.....	37 32 28
• Gure Elkartea.....	37 17 51
• Arrate egoitza.....	36 63 40
• Eusko Tren.....	47 09 76
• Noaua! aldizkaria.....	36 03 21
• Bake epaitegia.....	37 23 36
• Oa farmazia.....	37 60 76
• Iturralde farmazia.....	36 33 95
• Zubietako Batzarra.....	37 20 77
• Argindarra (Iberduero).....	47 09 76

Oharrak

ETXEBIZITZA

- Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi balkoi dituen etxebizitza salgai, San Esteban kalean. Interesatuak deitu 943 36 32 59 telefonora.
- Pisu bat alokatzen da Txikierdin. 645 733 812.
- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen edo inguruan, konpartitzeko. 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 90 27 62.
- Pisua alokatu edo konpartitu nahi nuke. Nirekin harremanetan jartzeko deitu, 647 973 844.
- Pisu bat bilatzen ari naiz, alokatzeko edo konpartitzeko. Oso urgentea da beraz, pisurik alokatzeko baduzu edo gelaren bat, deitu mesedez hainbat arinen 615 71 01 64 telefonora (Gortzon).
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Pisu baten bila nabil Usurbilen, alokairuan hartzeko prest nago. Tf: 617 194 688 (Raul).
- Alokairuzko etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro / 15 m 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaraginan 200 eta 300 m²-ko bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaraginan 20 m²-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. 678 81 52 77.
- Eguzkitzan 30 metro karratuko garaje itxia salgai. 667 583 195 (Maria Angeles). Deitu eguerditan edo gauz, bestela utzi mezua.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Goizetan etxeko lanak egiteko prest nago. 943 37 64 49.
- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. Deitu 943 37 10 32 telefono zenbakira.

- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Dei izeadazu 943 360 754 (Ana).
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.
- Umeak zainduko nituzke, arratsalde bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gauz edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan, Deitu hona: 652 757 495.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 15:00etatik 17:00etara. Astelehen, asteazken eta ostiraletan. 943 36 57 37.

Lan-eskaintzak

- Patri jatetxean zerbitzari bat behar dugu. Deitu 943 36 27 25 telefono zenbakira.
- Sukaldari, kamarera, tabernari eta garbitzailea behar dugu, jatetxe-taberna berrirako. Deitu 15:00-18:00. Tf: 687 078 356.
- Kopiagintza eta grafiko zerbitzuetako Usurbilgo denda berri batean laguntzaile bat behar dugu (Neskak nahiago dira). Interesatuak deitu Tf: 687470177.
- Bulego txiki bat alokatzen da kaxkoan, diseinatzaile edo komertzialei lehentasuna emango zaie (Neskak nahiago dira). Interesatuak deitu Tf:687470177.
- Langile bat behar dugu tabernan lan egiteko, larunbata eta igandetarako. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 360 217.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217 / 649 211 665.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Duela gutxi koilarea galdu nuen Iturralde botikatik kaxkora bidean. Topatu baduzu deitu 943 36 11 15 telefono zenbakira.
- Arratoi txakur kumeak oparitzen ditugu. Deitu 943 360 759 telefono zenbakira.
- Laguntzaile bat behar da Lasarteko ilepain-degi baterako. 943 37 71 90 / 629 402181.
- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat "punto de cruz"-ean eginahaztu genuen. Topatu baduzu deituz: 94337 20 34.
- Pelukeria bateko estetika kabina bat alokatzen da. 943 36 19 71.

Txerrimunik ordainetan

Zorionak Irati!

Abenduaren 4ean, hiru urte bete zenituen. Zorionak eta musu handi bat etxekoen partez.



Zorionak Milagros eta Maddi!

Abenduaren 26an amona Milagrosen urteak egingo ditu. Abenduaren 23an, aldiz, Maddik. Muxu handi bana bio!!!



Zorionak Xomorro eta Pitxas!

Abenduan zuen urtebetetzeak ospatzen direla eta, gu aurreratu eta Aitzagan azarora bukaera egin genuen herri afarian (Harpidetza afarian) zuen urtebetetzeak izan genituen gogoan. Hilabete honetan ere berriro ospatuko ditugu. Zuek ere ahalik eta ondoen igaro dezazuela egun hori. Harpidetza afarian izan ginen guztien partez eta baita egon ezin izan zuten guztien partez ZORIONAK. Amnistiako eguna etorri bitartean eutsi goiari!

HERIOTZAK

- Katalina Larrañaga Maiztegi

Julian Bengochearen alarguna. Abenduaren 1ean hil zen, 85 urterekin.



JAIOTZAK

- Jon Barcenilla Arriaga 2003-IX-22.
- Amaia Labaien Rodriguez 2003-IX-26.
- Miguel Vazquez Lopez 2003-IX-29.
- Haritz Korta Falagan 2003-IX-30.

Eztabaida foroak,
inkestak, aldizkaria,
albisteak...

www.noaua.com

al s p s t e r a




Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

+ f + x k
+ l a k k l r i n
+ s + k z k (i n ? +)
+ x z r + z u (s - + z k)
+ n n k k (+)
+ r + k k
Enku + x l k (w - , k r l k) u r
Zur + z k u z l + n

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

ARGILAN

Etxetresna elektrikoak



Kontzeju zaharra, 13
Usurbil

☎ 36 13 80

Agenda !

**ABENDUAK 19, OSTIRALA**

- Easo Koroa Salvatore Elizan. Arratsaldeko 20:00etan.

ABENDUAK 20, LARUNBATA

- Takolo, Pirritx eta Porrotxen "Poxpolin Marisorgin" izeneko emanaldi berria Oiardon kiroldegian. Bi saio: lehena, 16:30etan; bigarrena 18:30etatik aurrera. Antolatzailea: Argiaren Lagunak.

ABENDUAK 23, ASTEARTEA

- Zumarte Musika Eskolaren Gabon Kontzertua Salvatore Parrokian, 20:30etan hasita.

- Txotxongiloak Udarregi Ikastolan, 17:00etan. Ondoren, trikitixa kalejira pilotalekuraino.

ABENDUAK 24, ASTEAZKENA

- Zumartekoak Irrii abesbatzarekin 17:00ak aldera, Eliza parean, gabon kantuak kalez kale.

- 16:00etan presoen aldeko Olentzero irten-go da pilotalekutik. Azken entseguak, abenduaren 22an Aitzagan, 20:00etan, eta abenduaren 24an bertan, kantari irten aurretik.

ABENDUAK 30, ASTEARTEA

- Sebastopoleko Titiriteroak. Egun osoz pilotalekuan, gaztelu puzgarriak, futbolen erraldoia, malabarrak eta makilaje-tailerrean... Dena musikaz girotua. Eta arratsalde partean, txokolate-jana denentzat.

ABENDUAK 31, ASTEAZKENA

- Urte Zahar gaueko Diskoteka Usurbilgo Frontoian. Hasiera: 01:00. Bukaera:06:00.

URTARRILAK 5, ASTELEHENA

- Errege Kabalgata 19:30etan iritsiko da Usurbilgo pilotalekura.

Zinearen txokoa !

Good bye Lennin! Hello Coca Cola!

Sortaldeko Alemanian gaude, 1989an, eta komunismoan biziki sinisten duen Christiane Kerner andrea koman sartu da, semea garaiko DDR gobernuaren kontrako manifestazio batean ikusi eta bihotzekoa izan ostean. Koman dagoen denboran, Berlingo harresia jausi eta komunismoaren egingo du DDRn. Jakina, koman egonik, Kerner andrea ez da ezertaz enteratuko. Horregatik, komatik itzartzean, semeak ahaleginak eta bi egin behar izango ditu makalik dagoen amaren inguruan gezur handi bat biribiltzeko, den-denak berdin jarraitzen duela irudikatu



nahian.

Becker zuzendariak egoera komiko eta samurrak sortu ditu film honetan, zirrez betetakoak, baina ironia eta kritika burutsuak baztertu gabe. Neurriz eta orekaz eginda dago gidoia, errespetuz.

Berriki, Europako Film Onenaren saria eskuratu du hizpide dugun komedia honek.

Fitxa teknikoa:

Zuzendaria: Wolfgang Becker.

Herrialdea: Alemania.

Iraupena: 121 minutu.

Antzezleak: Daniel Brühl (Alex), Katrin Sass (Alexen ama), Chulpan Khamatova (Lara), Maria Simon (Ariane), Florian Lucas (Denis), Alexander Beyer (Rainer), Burghart Klausner (Alexen aita)...

Gidoia: Bern Lightenberg.

Egin kontu !

Pernando Barrenaren hitzaldia hilaren 18an, baina Udarregin

Abenduaren 18an, arratsaldeko 19:30etan hasita, "Euskal Herriak badu irtenbidea" izeneko hitzaldia eskainiko du Pernando Barrenak. Pleno aretoan iragarri bazen ere, hitzaldia Udarregi Ikastolako aretoan izango da.

Honako galdera hauek argituko ditu Barrenak: "Ezagutzen ari garen aldaketa politikorako eztabaida honetan, zer egitea proposatzen du ezker abertzaleak? Nola ulertzen dugu Ibarretxe Plana?".

E un k z k r k
ETXE ESTE
J TETXE
ON
 Gabon jaietan!

 3 3 27

L T ILL E
ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K
 IZTITX K I.F.F. (3 3 2 35-3 33
 F.H.F M I 21

AGIRREZABAL
 estankoa
 Zorionak eta
 urte berri on!

 Kale nagusia, 27
 Telefonoa: 36 11 10

neguan, GOXO

udaberria, POZIK

udan, GOZATUZ

eta... udazkena, AMETSETAN

Zaku bete ilusio dakar
datorren urte berriak

Zorionak !



Usurbilgo Udala

URTE BERRI ON !

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

MAHUKA

arropa denda

Aukera zabala
gizon nahiz emakumeentzat



Hemen duzu zure
oparia erosteko aukera!

